



---

**“MEMORIA DUTEN ESKOLAK,  
BAKEA ETA BIZIKIDETZA LANTZEN”**

# **PROGRAMA**


---

**ARGITARATZAILEA:** Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra  
Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

**DISEINU ETA MAKETATZAILEA:** Horixe Diseño

**IMPRIMATZAILEA:** Idazluma S.A.

**L.G.** NA 2418-2016



---

**“MEMORIA DUTEN ESKOLAK,  
BAKEA ETA BIZIKIDETZA LANTZEN”  
PROGRAMA**

---

- 
1. ZUZENDARITZA NAGUSIAREN PROGRAMA
  2. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREKIN ELKARLANEAN ARITZEA
  3. HEZKUNTZA PROGRAMA
    - 3.1. MEMORIA DUTEN ESKOLAK
    - 3.2. BAKEAREN ETA BIZIKIDETZAREN ALDEKO ESKOLAK
  4. LAGUNTZA TEKNIKOA, HARREMANAK ETA INFORMAZIOA



---

# 1. ZUZENDARITZA NAGUSIAREN PROGRAMA

Nafarroako Gobernuko Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren programan aurreikusitako helburu nagusietako bat bizikidetzaren da, gizarte anitzagoa, demokratikoa eta kohe-sionatuagoa izan dezagun, arazoei eta desadostasunei elkarriketaren bidez helduko diena, elkarrengana-ko errespetuan eta konponbideen bilaketa partekatuan oinarrituta.

Bizikidetzaren xedea lortzeko, programak lau helburu zehatz planteatzen ditu, hauek alegia:

- Iragana argitzea, egia eta justizia helburu.
- Eragindako kaltea sendatzea: elkartasuna biktimekiko.
- Bizitza sozial eta politikoa normalizatzea: elkarrengana hurbiltzea, elkartze soziala eta adiskidetzaren.
- Bakearen kultura eta kulturen arteko harreman aberasgarriak bultzatzea, giza eskubideen errespetu-tik abiatuta.

Helburu horiek lortzeko, hainbat lan-ildo ezarri dira, hiru atal nagusitan bilduta: Memoria Historikoa, berriki jazotako indarkeriaren memoria eta Bizikidetzaren. Hiru lan arlo horien baitan, beste helburu eta lan-ildo batzuk daude, nahitaez Nafarroako ikastetxeekin elkarlanean landu beharko direnak.

Horrela, Memoria Historikoaren Arloan planteatzen da beharrezkoa dela hezkuntza baliabideak ho-betzea, 1936ko kolpe militarrean, gerra zibilean eta frankismoaren garaian giza eskubideen urraketei dagokienez gertatutako lantzeko. Horregatik, ikerketa zentroekin, unibertsitateekin eta arlo honetan adituak diren beste eragile eta elkarte batzuekin elkarlanean, Nafarroan garai haietan gertatutakoari buruzko errelatu zorrotz eta egiazkoa finkatzea izanen da helburua, ikerketa berriak eta biktimekiko testi-gantzak ere aintzat hartuta. Horrekin batera, biktimei eta memoriaren lekuei buruzko prestakuntza eta jarduera eskaintza bat taxutuko da ikastetxeen esku jartzeko.

Era berean, Berriki jazotako indarkeriaren memoriaren Arloak bere helburu nagusien artean hau ezarri du: nabarmentzea zein garrantzitsuak diren arrazoi politikoek eragindako indarkeriaren biktimekiko erreparazioa eta elkartasuna, bai eta bakerako kultura garatzea ere.

Azkenik, Bizikidetzaren Arlotik planteatu da eskolako eta unibertsitateko jardueretan zenbait jarduera txertatzea, gai hauekin lotutako esperientzietan oinarritutako ezagutza, trebakuntza eta ikaskuntza lan-tzeko helburuarekin: giza eskubideak eta haien urraketak, gatazkak modu baketsuan bideratzea, indar-keriaren desagertzea, kultur arteko aberastasuna eta bizikidetzaren. Horrez gain, Nafarroako ikastetxeek bakearen eta bizikidetzaren aldeko ekimen eta jendaurreko ekitaldietan inplikatu eta parte hartzea sus-tatzea izanen da beste xede bat.



---

## 2. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREKIN ELKARLANEAN ARITZEA

Nafarroako arau esparruak ezarria du, hein handi batean, nahi dugun gizarte hori eraikitzeko bete beharreko bidea, ardatz nagusi bakea, bizikidetza eta giza eskubideen errespetua izanen dituen gizarte hori alegia.

Ildo horretan, apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legeak V. kapituluaren ezartzen duenez, Nafarroako Gobernuak Bake eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntza Programa bat bultzatu beharko du urtero, Nafarroako gizarte osoari zuzendua.

Berariaz, foru legeak ezartzen du V. kapitulu horretan Hezkuntza Departamentuak hezkuntza programa bat garatuko duela Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, terrorismoaren aurrean bizikidetza baketsu eta demokratikoaren balioak jaso eta islatuko dituena, eta gazteengan hitzak duen balioaren kontzientzia errotuko duena, ideiak modu demokratikoan defenditzeko bitartekoa eta modua den aldetik.

Azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legeak, berriz, 14.2 artikuluan aipatzen duenez, Nafarroako Gobernuak urteroko Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntza Programan behar diren jarduketak sartuko ditu, foru lege honen helburuak betetzeko, besteak beste, “errepresio frankistaren biktima izan zirenen memoria historikoa leheneratzea”, eta “erraztasunak ematea Nafarroan garai horretan gertatutakoak ezagut daitezen”.

Era berean, apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legeak, “Bakerako eta bizikidetasunerako hezkuntza” izeneko 7. artikuluan, honakoa adierazten du: “Bakearen eta giza eskubideen aldeko urteroko heziketa programan eta hezkuntzaren arloko departamentu eskudunak garatutako programen esparruan, kontuan hartuko dira foru lege honetan jasotako helburu eta printzipioak”, eta, horien artean, “Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean bildutako balioak sustatzea”.

Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia, zehazki, Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren eta Bizikidetzaren Zerbitzuaren bidez, aspalditik ari da lanean planak eta zerbitzuak garatzen, erantzuna emateko bi arau hauen aplikaziotik datozen gaiei erantzuteko: batetik, 47/2010 Foru Dekretua, abuztuaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleentzako eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa, eta, bestetik, 204/2010 Foru Agindua, abenduaren 16koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako bizikidetza arautzen duena.

Ildo horretan, hezkuntza ikuskapeneko zerbitzuak, aholkularitza juridikokoak eta bizikidetzarako aholkularitzakoak egindako lanaren ondorioa hainbat zerbitzuren eskaintza izan da, zerbitzu beharrezkoak eta maiz eskatzen direnak, aholkularitza, prestakuntza eta esku-hartzekoak, hezkuntza komunitate osoari zuzendutako (gehienbat ikasle, irakasle eta familiei), ikastetxe bakoitzean bizikidetza giroa kalte-tzen duten egoeren prebentzio eta tratamendurako.

Bestalde, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusian Hezkuntza Departamentuak betetzen duen lana osatzeko aukera ikusten da, gazteen artean bake kultura finkatzeko xedea du-



ten baliabideak indartuz eta sustatuz, ikastetxe bakoitzeko bizikidetza testuinguru partikularraz harago. Kultura horren abiapuntua, betiere, historia hurbilean eta iraganean gertatutakoa jakitea izanen da, eta gai hauen inguruko ezagutza, gogoeta eta bizipenak sakonduko ditu:

- Giza eskubideak eta haien urraketak.
- Erreparazioa eta elkartasuna terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktima izandakoentzat.
- Indarkeria helburuak erdiesteko tresna bezala deslegitimatzea.
- Gatazkak modu baketsuan konpontzea, bizikidetza baketsu eta demokratikorako abiapuntu gisa.
- Kultur arteko aberastasuna baloratzea muturreko joeren eta fobien aurrean.

Helburu multzo horrekin, elkarlan bat sortu da batera landutako proiektu bat sortzea ahalbidetu duena Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren eta Hezkuntza Departamentuaren artean, zehatzago esanda Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren eta Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren artean. Hortaz, lan proiektu dinamikoa da, lankidetzazkoa, berrikuntza pedagogikoa sustatu dezakeena eta gaitasuna izanen duena bertan parte hartzen duten eta haren onura jasotzen duten pertsona guztien oinarri etiko eta demokratikoa sendotzeko (bakearen eta bizikidetzaren balioei dagokienez). Onuradun nagusiak hauek izanen dira: ikasleak, oro har, irakasleak, ikastetxeetako zuzendaritza taldeak eta ikasleen gurasoak.



---

## 3. HEZKUNTZA PROGRAMA

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia Hezkuntza Departamentuak eskaintzen duenaren osagarria izanen den programa bat taxutzen aritu da, bi gai hauetan oinarritua: *Memoria duten Eskolak* eta *Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Eskolak* izeneko proiektuak abian jartzea. Bi proiektuek, betiere, trebakuntzarako jarduera eta esperientzia batzuk eskaintzea dute funtsa, Nafarroako ikastetxeetan bake eta bizikidetzaren kultura sendotzeko.

### 3.1. MEMORIA DUTEN ESKOLAK

*Memoria duten Eskolak* epe ertain eta luzeko hezkuntza proiektu bat da. Memoriaren leku eta ibilbideei buruz trebatzeko ikastaro bat da. Unibertsitaterik kanpoko hezkuntza maila guztietarako planteatu da, haur hezkuntzatik bigarren hezkuntzara, eta haren asmoa memoria historikoari buruz sareko lan bat sortzea da, Nafarroan dauden memoriaren lekuak baliatuz, Ezkabako kartzela edo Sartagudako Memoriaren Parkea, besteak beste. Ikastaroak bi zati ditu; lehenbizikoa gaurkotze zientifikoari dagokio, eta bertan gogoeta eginen da memoriaren alderdi etikoaz, iraganaren kudeaketa publikoaz eta Europako nahiz Espainiako memoriaren guneez; bigarrena gizarte zientzien gaurkotze didaktikoari dagokio, irakasleen lanean zenbait kontzeptu sartzeko xedearekin, memoria, historia eta gizarte, esate baterako; azkenik, hirugarrenean aukera emanen da Gurseko kontzentrazio esparrura (Frantzia) bisita egiteko. Gogoeta teoriko bat eta, batez ere, ereduak ematea, lurralde desberdinetan memoriak berreskuratzeko eta errelatuak eraikitzeko erabiltzen ari diren esperientzia eta tresna guztien balioa nabarmentzeko.

Hona hemen helburuak:

- Gogoeta egitea memoriak hezkuntzan duen garrantziaz, ikasteko tresna gisa.
- Memoriaren arloko Europako politika publikoak ezagutzea.
- Memoriaren guneak irakaskuntzan txertatzea.
- Memoria historikoa ardatz gisa erabili duten hezkuntza esperientziak aztertzea.
- Tokian tokiko materialak sortzea ahozko iturriak erabiliz.

### 3.2. BAKEAREN ETA BIZIKIDETZAREN ALDEKO ESKOLAK

*Bakearen eta bizikidetzaren aldeko eskolak* prestakuntza jardueretarako proposamen bat da, eta, *Memoria duten Eskolak* proiektuak bezala, bakerako hezkuntza eta kultura bultzatu nahi ditu, bizikidetzak baketsu eta demokratikoaren gaia sakonduz. Jarduera horiek Nafarroako ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan sare osoari eskainiko zaizkio, eta ikasleek, irakasleek eta familiek parte hartzeko aukera ematen dute; euskaraz nahiz erdaraz egin daitezke.

Jarduera hauen programazioan honelakoak aurkituko ditugu:

- antzerki forumeko saioak, adiskidetzarekin, aniztasunarekin eta eskolako jazarpenarekin lotutako gaiekin.



- lankidetzazko jolasak eta jarduera ludikoak gatazken konponbideari eta giza eskubideei buruz, gazteenei zuzenduak.
- intereseko gai hauei buruzko trebakuntza tailerrak: sare sozialen bidez indarkeriaren erabileraren prebentzioa, pertsona gisa haztea, gatazkek modu baketsuan konpontzeko trebetasunak... eta abar.

Lankidetzarako esparru dinamiko eta etengabe honek ahalbidetuko ditu, gainera, proposatutako proiektu eta jardueren ebaluazioa eta haien hobekuntza etengabea, eta jarduera eskaintza hau aberastu dezaketek berriak aztertu eta prestatzea, hala nola intereseko gaiei buruz batera egindako ikerketak eta lanak, kontzientziazio eta sentsibilizazio jarduerak eta kanpainak jendartean, eta abar.

---

## 4. LAGUNTZA TEKNIKOA, HARREMANAK ETA INFORMAZIOA

Nafarroako Gobernuko Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako ikastetxeen eskura jartzen ditu bere baliabide teknikoak, eskaintako jardueren koordinazioa eta antolaketa ahalik eta onenak izan daitezzen.

Era berean, hala nahi duten ikastetxeetako zuzendaritza taldeen, orientazio departamentuen eta jardueren koordinatzaileen esanetara egonen da, memoriari eta bizikidetzari buruzko proiektuak, kasuan kasuko eskola komunitatearen hezkuntza eta trebakuntza beharretara, testuinguru sozialera eta berezitasunetara egokitutakoak, batera aztertu eta programatzeko.

Gure nahia jarduerak ahalik eta ikastetxe gehienetara iristea bada ere, lehentasuna emanen zaie bizikidetzako arazo zehatz bati heltzeko urgentzia detektatu duten ikastetxeen eskaerei, bai eta bizikidetzak hobetzearekin eta Memoria eta Bake kultura sendotzearekin lotutako helburu didaktiko batzuei modu egituratu eta planifikatuan heltzen dietenei ere.

Nafarroako Gobernuko Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bidez, programa honi buruz dagoen informazio guztia eskuratu daiteke. Horretarako, hau da helbidea:

### **Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia**

Memoria eta Bizikidetzak Zerbitzua

Arrieta, 12-5. solairua

31002 Iruña

Tel.: 848 426 022

E-mail: [pazyconvivencia@navarra.es](mailto:pazyconvivencia@navarra.es)